


Herri Aldizkaria



Jesus Segurola txistu egile zumarragarra eta Urretxuko Ignacio Barrio danbor egileak, urtetan egindako lana dela eta Txistulari Elkarteko zilarrezko domina jaso zuten Errenderian, urriaren 27an. Gure bi herri tar hauek z gain, Pepe Gancedori eta Keller grabaketa

etxeari ere, elkarteko zilarrezko domina oparitu zitzaion.

Zorionak guztioi baina bereziki Jesus Segurola eta Ignacio Barriori txistularien artean hain garrantzitsua den domina jasotzeko egindako lan bikainagatik.



□ Urola Garaiko Mankomunitateko arduradunek Zumarragako San Jose ikastetxea erostea erabaki dute, bertan Urola Garaiko Lanbide Heziketako ikastetxea kokatzeko. San Jose ikastetxea erosteagatik 350 eta 400 miloi pezeta bitartean, ordaindu beharko da, baina Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren dirulaguntza jasoko du mankomunitateak, ordainketa honi aurre egiteko. Urretxu Garaiko Lanbide Heziketa ikastetxea datorren ikasturtean jarriko da martxan eta Ordiziko Goierri ikastetxearekin eta Tolosaldeko lanbide heziketa eskolarekin harremanetan izango da.

□ Urriaren 14an inauguratu zen Zumarragako Mendizabal poligonorako sarrera, eta bi herrietako agintariek gain, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren ekitaldian. Sarrera, Esteban Orbegoza S. A. enpresaren ondoan kokatua dagoenez eta lantegi honen inguruan egunero kamioi ugari ibiltzen denez, sarrera honek herri barruko trafikoa asko murriztuko du. Proiektuak hasera batetan, 75 miloi pezetako aurrekontua zuen eta diru kopuru hau Eusko Jaurlaritzak ordainduko du, baina azken prezioa zertxobait igo denez, diferentzia Zumarragako udalak ordaindu beharko du.

QUEVIAZALDEN

**ZINTZU
MINTZU**
ELIARTEA

3.000 m2 ALTZARIZ JANTZITA

— ALTZARIAK —
ALGUEA

Iparragirre, 42 © 72 01 56 URRETXU


ZURE ETXEA APAINTZEKO

Munch

Barne jantziak - Lencería

Legazpi, 9 © 72 43 58 ZUMARRAGA
San Martín, 18 © 42 42 14 DONOSTIA

Joxe Jauregi: "Gizarteak ez daki ezer gutaz, gu integratzen saiatzen gara, eta zuek ez gaituzue kontutan hartzen"



txikiak kotxe-kapotan daramate-nak...) eta hauen lagunak eta sendikoak gehitzen badizkiogu kontutan hartzeko kopurua, %60, osatzen zutela gogoratu zuen.

Deporte mailan gutxituen integratziorako nordikoek dituzten planteamentuak ere oso onak iruditu zitzaizkidan.

Eraikuntza historikoak egokitzen

**Bakoitzak pentsa
beza zer egingo
lukeen silla batean
eserita egongo balitz**

ari den arkitekto batek ere argi azaldu zigun eraikuntza zaharrak egokitzen badira, berriak egokitzeko inongo arazorik ez dela egon behar. Laguntza tekniko mailan ere aurreratu da. Gauza oso sofistikatuak badaude baina, hori ez dela bidea esan zuten, gu gizartera moldatzeko tramankuluak asmatu beharrean gizarteak ingurua egokitu behar du.

O: Eta gure bi herri hauetan zer?

J: Bi herri hauetan, beste herrietan bezala. Eskola bakarra dago egokitua (Zelai-Aristi ikastetxea). Urretxuko kultur etxekoa lotsagarria da. Gauza guztiak hemen egiten dira eta eskailerez josita dago. Guk ez dugu gauza paralelorik egin nahi,

gizartean parte hartu nahi dugu, ez dugu ghettorik nahi baina leku guztietan oztopoak dauzkagu (bi udaletxeetan, Legazpi etxean, espaloietan...). Ospitalean bertan ez dago guretzat egokitutako komunik. Inori ez zaio bururatu zabaltzeko baimena emateko ate zabalagoak eskatzea.

Horrez gain, elbarriek aparkatzeko dauden lekuak errespetatzeko eskatuko nuke, guk aparkatzeko lekua limitatuta daukagu, leku hauen beharra daukagu.

Errudun asko dagoela esango nuke, txikitatik haurrek ikusi beharko lukete horrelako jendea bizi dela, gutxitu fisikoek leku berezietan ez lukete egon behar, ez lukete ghettoetan egon behar; horrela jendeak ezagutuko gintuzke, bai gu eta bai gure arazoak.

Bakoitzak pentsa beza zer egingo lukeen silla batean eserita egongo balitz, nola konponduko litzaketeen egun horretarako janaria, edaria, eta hainbat gauza eskuratzen.

Gu behintzat, gutxitu fisikoek dauzkaten oztopoez ederki asko jabetu ginen, beren egoitzara joan, Zumarragako Euskadi Enparantzako 6. zenbakiko lehenengo pisuan eta igogailua hondatuta zegoelako elkarriketa egiteko leku apropos bila hasi ginenean. Aldizkari hau egiten den lekura ere gutxitu fisikoek etortzerik ez dutela ikusi genuen.

Tenerifen hil honetan izandako paraplejia ihardunaldietatik etorri berria den Joxe Jauregirengana, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazioko koordinakundeko lehendakaria dena, jo dugu hango berri eta gutxituen kezken berri izateko asmoz.

Otamotz: Tenerifen gauza interesgarri ugari entzungo zenituen, emai-guzu horren berri.

Joxe: Egia esan, ihardunaldi hauek batez ere mundu honetako profesionalentzat izan dira (sendagile, ATS, fisioterapeuta, ortopediko ...), baina makina gauza interesgarri entzun dut.

Hala turismo arloko enpresari batek esandakoa, berak produkto turistikoa guztiontzat ez bada kalitaterik ez daukala esan zuen. Europa mailan paraplejikoek kopurua %3a izanda ere, hauei mugitzeko zailtasunak dituztenak, une batean mugitzeko zailtasunak dituztenak (istripuren bat izan dutenak, gurasoak seme-alaba

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU © 72 14 13

MASTER - Hezkor
CADENA

Zumarragako elektrogailu
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera
benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

LIBURUENDA

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

IPARRAGIRRE, ATSEDENA NEKEZ EZAGUTU ZUEN IBILTARIA

Aurten euskal kantariaren jaiotzaren 175. urteurrena betetzen da



Jose Mari Iparragirrek kitarra besapean zuela mundu osoa zeharkatu zuen Euskal Herriko ohiturak eta hizkuntza zabalduz. Honela, bere ahots eta poemen bidez gure herriko mezulari bilakatu zen

Nahiz eta aurten bere jaotzaren 175. urteurrena ospatu, urtetan zehar Iparragirrerren memoria bizirik mantendu da bai Urretxun eta baita Euskal Herria osoan zehar ere.

Iparragirrerren ospeak gaur arte irautea ez da kasulitatea izan, honetarako lagungarria izan da Iparragirrerren inguruan sortu diren hainbat ekitaldi.

1981. urtean bere heriotzaren mendeurrena ospatu zen Urretxun eta orduan, zenbait ekintza burutu ziren: 1981.eko apirilaren 5ean Urretxuko kanposantuan Jose Vicente Lasak eraikitako mauseleoa inauguratu zen, eta ekitaldian, orduan lehendakari zen Garaikoetxea izan zen.

Eusko Jaurarlitzako Kultura Sailak ere, hainbat ekintza eratu zituen. Hauen artean, Iparragirre bizi izan zeneko garaia ezagutu, eta urretxuarraren lanak, euskal kontzientzia, literaturan eta musikan izan zuen eragina aztertu zen Donostia, Bilbo eta Gasteizen ospatutako hitzaldi zikloetan.

Honetaz gain, eta urte berean, zenbait idazlek, Luis Castresanak eta Iñaki Linazasorok hauen artean, Iparrag-

girrerren bizitzari buruz idatzitako liburuak eta beste zenbait argitarapen kaleratu ziren.

Euskaldun gutxiak jaso du Iparragirrek adinako goresmenik, Madril, Bilbo, Gernika, Donostia, Eibar... eta beste hainbat herritako kale eta plazek bere izenaz ezagutzen baitira.

Iparragirre izeneko opera bat ere bada, eta bere bizitza eta kantuei buruzko antzerki ugari antzeztu dira urtetan zehar, baina egun, ezagunena Zeanuriko herriak egindako antzezlana da. Benetan interesgarria litzateke antzezlana hau Iparragirrerren sorterrian bertan ikusteko aukera izatea eta bere jaiotzaren 175. urteurrena ospatzen dela aprobetxatuz, garai ere egokia litzateke.

Artikulu honetan, ez ditugu Iparragirrerren omenez burututako ekintza guztien berri eman, denak aipatzeak luze joko lukelako.



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



JAKIN

**Idazmakinak eta
kalkulagailuak**

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU



ARANTZA URRETABIZKAIA MENDIOLA

Egunero txigortua

Txigorlekua: S. Esnaola, 34, etxeazpia.

© 72 13 48 Etxekoa: 72 48 46
ZUMARRAGA 20700

Zein da/zen zure ustez lekuri aproposena ligatzerako garaian?



Jabi Otermin, 25 urte

Edozein leku izan daiteke aproposa: tabernak, kalea, festak,... Nire ustetan, ligatzerakoan diskurtso ona prestatzea ezinbestekoa da eta honekin neska konbentzitzen saiatu. Azken finean, nire iritziz, lekua ez da garrantzitsua, bigarren mailako gauza da.



Josune Ormeño, 21 urte

Urretxura etortzen gara ligatzera eta, batik bat, tabernetan erazionatzen gara jendearekin. Dena dela, festek ehundoko aukera ematen digute ligatzeko eta hauek ondo aprobetxatu behar izaten dira.



Josefa Delgado, 60 urte

Nire garaian, gertuen zegoen herrira jotzen genuen. Urte haietan egun dagoen dantzalekurik ez zegoenez, erromeri eta dantzetan ligatzen genuen.



Patxi Iraeta, 28 urte

Nire gazte garaian, orain bezala, tabernak ziren ligatzeko tokirik aproposenak. Dena den, aurki aita izango naizenez, ez dut denborarik izango gauza hauetan pentsatzeko, zeregin gehiago eta garrantzitsuagoak izango baitituz.



Ezkion jaio baina sei urte zituenetik Zumarragan bizi izan den hau, Zumarragako AEK-n bi urtez aritu ondoren, eta Eskoriatzan magisteritza ikasketak burutu ondoren, Tuterarantz abiatu zen hango ikastolan lan egiten hasteko asmoz.

Aurtengoa, dagoeneko bosgarren ikasturtea, berezia eta ahaztezina izan da, gaur egunean, bere zuzendaritzapean dagoen ikastolak antolatu behar izan baitu Nafarroa Oinez.

Tuterako ikastola orain dela 11 urte sortu zen. Haseran, 5 haur ziren, Argiñe iritsi zenean, 65 haur zeuden; egun, 115 haur daude eta azken urte hauetan matrikulazio ona izan dutela esan behar da. Haseran, elkarte batek utzitako lokal batean ematen ziren klaseak, orain leku kaskarra dute baina urtarrean ikastetxe berrira joango dira.

1994ko irailetik, jakin zutenetik, gogor egin dute lan. Udalarekin harremanetan jarri ondoren, Erribera bertan lan berezia egin behar izan dute, jendeari Nafarroa Oinez zer den azaltzen eta ikastolaren berri ematen.

Aurtengo leloa jarraituz, inoiz baino gehiago lortu dute jende aldetik zein diru aldetik (40 milioi) baina ikastetxearen aurrekontua 140 milioitakoa dela esan digu. Ikastetxe berriarekin, legalitatea lortuko dute. Nafarroa Oinez-ek, Tuterako euskal eremu txikia indartzeko balio izan du, eta hori ez da gutxi. Argiñek Tuterara joateko esan digu, Tuterak merezi omen du eta Zizerone lanak egiteko prest azaldu zaigu.

ARGIÑE KORTA

EDURNE

*Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Eléctricas

HERCE
Electrogesta, M. E.

**Akumularoreak gaueko
tarifaz!**

Denda: Ipeñarrieta 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
20700 URRETXU


BIONA

AROSZTEGIA

☎ eta Faxe: 72 02 55
Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Unibertsitate mailako ikasleen kezkak

Matrikula, pisua, autobusa, trena, klase partikularrak... Guztiak ordaindu behar eta gehienetan, diru gutxi dena ordaintzeko. Hauek izan ohi dira unibertsitate mailako ikasleen artean, buruko mina sortzen duten arazoak, batez ere, ikasturtea hasiberri denean

Matrikula ordaintzearekin hasten dira lehen kezkek, batez ere, ikasle berak bere poltsikotik ordaindu behar izaten duenean. Horrela-koetan, asteburuetan lan eginez ordaindu ahal izaten dute edo baita Udan lan eginez ere. Matrikularen prezioa, aukeratu den ikasketa zentruaren arabera ezberdina izaten da. Pribatua edo publikoa den ikusi behar da, pribatua beti ere, garestiagoa izaten delarik.


Hurrengo arazo larriena, pisuarena izaten da. Sarritan, UBI amaitu ondoren aukeratutako ikasketak ez dira herrian bertan egoten. Honek, bi egoera sortzen dizkigu: egunero joan-etorriko bidaia egitea edo pisu bat alokatzea.

Egunero joan-etorria egiteko, garraio sare egokia behar da. Gure herriaren eta ikas lekuaren artean, komunikazio on eta egokia beharrezkoa da. Aukera hau duen hiriburua Donostia da. Trenari esker, Zumarraga eta hiriburuaren arteko komunikazioa ona da. Honela, Donostian ikasten duten zenbait ikasle, egunero joan-etorria egin nahiago dute.

Beste zenbaitzuk ordea, eguneroko bidaiei muzin eginez, nahiago izaten dute pisua alokatu. Donostian, ikasleentzako pisu baten alogerak, 80.000 pezeta hilean balio dezake. Dena den, prezio hau, batazbestekoa besterik ez da eta etxearen kokalekuak, egoerak, eta beste zenbait ezaugarriak prezio hori aldatu dezakete.

Trenaren bidez beste hiriburu batera ere, Gasteiza alegia, joan gaitzake. Hiriburu hau ordea, ez dago Donostia bezain ongi komunikatua. Beraz, egunero joan-etorria egiteko nahiko deserosoa dela esan behar da. Gasteizen ikasten duten Urretxu-Zumarragako ikasle unibertsitari gehienak, trenaren ordutegiaren bateragarritasun eza ikusirik, pisua alogeran hartzen dute. Orokorrean, Donostiakoak baino merkeagoak izaten dira, batazbeste, 60000 pezeta hilean balio dezaketelarik.

Bestalde, Bilbon ikasten duten



Urretxu-Zumarragako unibertsitariak, derrigorrez pisua alogeran hartu beharrean aurkitzen dira. Ezin esan daiteke Bilbo gure bi herriekin ongi komunikatua dagoela. Autobusa da (taxiaz aparte noski) dagoen garraio publiko bakarra eta bere ordutegia ikusirik, motz geratzen dela edonork asma dezake. Bilbon, alogerazko pisu baten prezioa Gasteizeko baten antzekoa da, 60000 pezeta hilean batazbeste.

Azkenik, Iruñeako kasua aipatu beharra dago. Iruñea ere, ezin esan daiteke gure bi herriekin oso ongi komunikatua dagoel. Honela, Iruñean ikasten duten Urretxu-Zumarragako ikasleak ere, pisua alogeran hartu beharrean aurkitzen dira. Iruñean, beste hiriburuetan baino garestiagoa da pisuen alogera, batazbeste 100.000-120.000 pezeta hilean ordaintzera ere iritsi daitekeelarik.




ARGIKI
ARGIGINTZA

PARRA anaiak C.B.

S. Esnaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 41 64

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA



ARTYRO

Markoketa lanak eta
Arte Ederretako tresnak

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20
20700 URRETXU



Udazken tropikalaren ondorioak nabarmenak dira, bai Barrendiolako urtegien eta baita gure bi herriotan ere. Horrela ikus ditzakegu lorerik edo landarerik gabeko jardinak. Ur murrizketaren edo aurrekontuen murrizketaren ondorio ote?

NONDIK DATOR!

BELAUSTEGI

Abizen honen etimologiaren arabera, bi zatitan bereizi daiteke: alde batetik, “bele” edo “bel(h)ar” izan daiteke abizenaren erroa (honetan, adituek bere zalantza dute). Alfonso Irigoienentzat, esate baterako, “Belauztegi” albitzez (erderazko “heno”) betetako lur eremuaren esanahia du. Abizenaren bigarren zatia “-tegi” atzizkia izan daiteke, bai “-egi” bai “-degi” aldaera izan daitekelarik. Nahiko fenomeno berria omen denez, “-tegi”-k “etxe”-ren esanahiarekin agertzen zaigu. Era berean, “-degi” atzizkia, izen edo patronimiko batekin batera erabili izan da. Abizen honekin, Juan Jose Belaustegi, musika konposaketa lanetan sona handia lortu zuen urretxuarra gogoratu nahi dugu

MUSIKAREN OIHARTZUNAZ GOZOKI GORTUAK

Gauza askotan gure herriek hutsegiteak badituzte ere, badute zertan zoriondu. Zoriontzekoa baita gaur egun Zumarraga Urretxuko haur eta gazte askok (eta ez hain gazte ere) musika munduan murgilduta egotea, eta are gehiago, honek bere fruitua ematea.

Musika Eskola eta Musika Taldeek lan itzela egiten dute atal honetan. Baina atzera begiratzuz gero, musika arloan izen propioa duten herritar asko ditugu. Haiek gabe, akaso, musika grina mugatuagoa litzateke.

Gaur egun izen berezi asko dauzkagu bi herriotan, baina era berean ezinbesteko diren musikari anonimo asko ere: Musika Eskolako ikasle eta irakasleak, musika taldeetako partaide, zuzendari, laguntzaile...

Jarraitasunaren aldetik gainera, lasai egon daitezke gure herritarrak, beti izango baitute nork bere entzumen eta sentipena gozarazi. Haurrak gero eta gazteago hasten dira euren musika ikasketekin, hortaz emaitzak gero eta hobeak dira.

Guzti honetaz inork zalantzarik balu (eta zalantzak izatea jakintsuen gauza dela diotenak badira), inoiz baino aukera zabalagoa du Santa Zezilia jaiaren inguruan ospatuko diren kontzertu eta emanaldiez gozatu eta ondoren iritziak emateko.

Idoia Luzuriaga eta Aitor Esnal



F/s

Argazki Estudioa

Argazki eta bideogintza

Ipeñarrieta, 20 & 72 23 19 URRETXU



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

**Gure erakusketan zain
gaituzu!**

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxe: 72 54 59

ELIZ - KALE

L AUTOESKOLA

Bidez, 11

20700 ZUMARRAGA

④ 72 04 52

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEG ALDE AUTO


- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBILGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA



PEUGEOT

Mugitegi, 17 ☎ 72 51 37 - URRETXU



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

© 72 56 82
72 22 92

ZUMARRAGA ETA URRETXUKO MENDIZALEAK

Mendizaletasuna kirolaren agerpenik jatorrena da, beharrezkoa baldin bada, taldearen martxa atzean geratzen denaren erritmora egokitzen delako. (Pio XII.). Hitz hauekin definitzen zuen Pio XII.ak Aita Santuak mendizaletasuna eta bere inguruko giroa.

Baina, egia ote da? Zer nolako kirol (mendiari lotutakoa ...) eskaintza dugu gaur egun Zumarraga eta Urretxun? Ondorengo lerroetan duzu behar duzun informazioa.

Zumarraga eta Urretxu mendizale asko izan diren herriak izan dira betidanik. Aspaldi - duela 30 urte inguru - herriko mendizale batzuek egiten zituzten mendi irteerak burutzeko, komerietan aritu behar izaten zuten urrutira joateko. Beste erabateko garaiak ziren, eta esate baterako Pirinioetara joateko, autobusez eta trenez 2 edo 3 egun behar zuten. Pasadizo hauek beraiek gordetzen dituzte eta horien berri emango dizuegu noizbait, hurrengo OTAMOTZetan.

Gaur egun, ordea, egoera guztiz desberdina da, eta hortaz mintzatuko gara artikulo honetan.

Une honetan herrietan ditugun bi mendizale taldeak, **GOIERRI** Kirol Elkarteko Mendi Saila eta **OSTADAR** Mendi Taldea dira. Bien artean inolako lehiarik izan gabe, hilabetero, 2 edo hiru irteera antolatzen dituzte; beraz, Zumarraga eta Urretxuko taldeek antolatutako eskaintza aukera urria dela esaterik ez dago.

Talde bakoitzak bere irteera propioak dituen arren, aurtan hasi da bien arteko elkarlana, eta mendi irteeren kalitatea eta eskaintza hobetu du honek. Elkarlan horren ondorioz, alde batetik, Uren Banalerroaren Ibilbide Handia egiten ari dira etapaz etapa (15 etapa hain zuzen ere), Burgos

eta Araba arteko mugan dagoen Peña Erea menditik, Aragoa eta Nafa-rroako mugan dagoen Hiru Erregeen Mahaia mendi gaineraino, Kantauri eta Mediterranearen itsasoetarantz doazen

**Irteerak ez dira
jendeak uste bezain
gogorak eta giro ona
egoten da**

uren banalerro berberetik. Dagoeneko, Belate mendateraino iritsi dira, hau da, Nafarroaraino heldu dira. Aurrean geratzen zaizkie Auritze, Orbaizetako Ola, Organbide lepoa ... eta hainbat eta hainbat leku eder ezagutzeko.

Elkarlanaren ondorioz ere, aurtan Alpeetan izan ziren gure mendizaleak - batzuk Tré La Tête glaziarrean eta beste batzuk Mont Blanc-eko gailurrean. Datorren urtean ere, Alpeetarantz antolatu nahi dute irteera bat Grand Paradiso (4.061 m.) edo Monte Rosa (4.634 m.) mendi gailurretara, hain zuzen ere.

Baina, irteera guztiak ez dira Alpeetara edo Pirinioetara izango ezta? Ez, senderismoa ere praktika-tzen da, Euskal Herriko mendiak eta euskal geografian barrena mugitzen dira batez



ere, gure neska-mutilak. Hemen ere makina bat mendi eta toki eder dagoelako -hor dira esate baterako, Lokiz, Valderejo, Adartza, Arkamo, Gibijo ... eta hainbat eta hainbat mendizerra dotore- Euskal Herriko geografian zehar txango ezin hobeak antolatzen dituzte.

Baina irteerak, gogorak al dira? Hauxe da askotan dugun kezka.

Egia esan, mendira joateko (eta are gutxiago **OSTADAR** eta **GOIERRI**-rekin joateko), ez duzu dekatleta izan behar. Hori bai, mendian 5 edo 6 orduz oinez ibiltzeko fondo fisiko piska bat izan behar duzu. Dena dela, gure ustez, mendira joateko arazoa ez da askotan fondo fisikoa edo eta indarra izatea edo ez izatea. Jendeari (gazteoi, batez ere), edozein igandetan goizeko 6etan jaikitzea ez zaigu batere gustatzen eta lerro hauek idazten duenari ere ez (nahiz eta mendira ia igandero joaten den). Hori -besteak beste- mendira ez joatearen arrazoietako bat dela uste dugu. Hala eta guztiz ere, parte har dezazuen animatzen zaituztegu - esan digutenez, Pio XII. -aren arau eta norma guztiak ondo betetzen dituzte-eta.



Iparragirre, 1 © 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA



Nekolalde, 1 © 72 56 19
Almazena © 72 58 71 URRETXU

HAURRENTZAKO ZINEMA

Igandetan, arratsaldeko 4:30etan eta Pagoeta Antzokian **Zintzo Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak. Prezioa: 100 pezeta.

Azaroak 5: Astakiloen abenturak eta kalenturak

Azaroak 12: Asterix eta Zesarren ustekabea

Azaroak 19: Arka galduaren bila

Azaroak 26: Oliver Twist

Abenduak 3: Kalabaza Tripontzia

IKASTAROAK

Bergarako UNEDeko euskara

ZORIONAK



Andoni Jaka, 11 urte bete zituen urriaren 15an. Berandu den arren, zorionak.



Ainhoa Balerdi, 20 urte bete zituen azaroaren 2an. Zorionak eta urte askotarako!



Amaia Garziandia, 24 urte beteko ditu azaroaren 5ean. Zorionak eta kontuz ibili Bilboko momorroekin.



Iban Aldalur, 20 urte beteko ditu azaroaren 14an. Eta ba al dakizu zapata desberdinak zerman tipoaren txiste ...? Zorionak.



Aitor Pildain, 15 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak zure lagunen partetik. Dagoeneko gonbidapenaren zain gaude.



Oihane Toledo, 20 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak ondo kantatu eta txiste onak kontatu.

departamenduak **Ni-aren idazkerak** eta **autobiografia ikastaroak** antolatu ditu.

Teoriaz aparte, idazle desberdinen lana aztertuko da. Klaseak larunbat goizetan izango dira. Ikastarorako erabilgarria izango den materiala banatuko da ikasleen artean. Informazio gehiago 76 13 42-3.

SAN MARTIN EGUNA

SAN MARTIN egunean, eguerdiko hamabietan salda, txorizoa, odolkia, tripakiak, ardoa eta ogia banatuko da Urretxuko jubilatuen egoitzara hurbiltzen diren jubilatuen artean.

SCHWARZENBRUCK

Schwarzenbruck eko familia batek **au-pair** bat hartuko luke sei bat hilabetetarako. Interesatuak dei Urretxuko Kultur Etxera 72 41 70 telefono zenbakira.

ARTIZAR

13-16 urte bitarteko haurrek **ARTIZAR** aisialdi elkartean aritzeko izena eman nahi badute azaroaren 4an, arratsaldeko 16:30etan Iparragirre Plazara joaten badira, monitoreek beren izenak hartuko dituzte.

XI. OSTADAR MENDI ASTEA

Azaroak 19: Anjel Etxeberria zena-ren omenezko haur ibilaldi neurtua.

Azaroak 20tik 24ra: Diapositiba emanaldiak, Zelai-Aristi eta Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan.

Azaroak 21: Batzar Nagusia. Urretxuko Kultur Etxean.

Azaroak 22: Mendi irteera, Iratxe monastegitik Montejurrara, ondoren Lizarra aldean bazkaria.

URRETXUKO

ALDAPA

The advertisement features a central illustration of several anthropomorphic glasses and a bottle. One glass is labeled 'LAKET', another 'GOIKO KALE', and a bottle 'FLORIDA'. A pyramid in the background is labeled 'OSABA'. The text 'URRETXUKO' is arched at the top and 'ALDAPA' is arched at the bottom.